

Ez zait jendea gustatzen



ARITZ GALARRAGA

Horrela, oro har. Kolektibo gisa. Salbuespenekin, noski. Badira jasangarri diren gizabanakoak, are maite ditudan gutxi batzuk ere. Izango da agian nahasmenduren bat. Kontua da nahiago izaten dudala etxean geratu, adibidez sofán, kanpoalde gordinera atera baino. Batzuetan, baiki, ateratzen naiz, atera behar izaten dut, besterik ez bada mortu kolorea ken dakidan. Eta horrelakoetan banku batera joan ohi naiz, liburutegi publiko eta aldi berean pribatu ere baden banku bat.

Ondo. Nire bizitza zergatik kontatzen dizuedan: bada, banku horretara joan nintzen azken aldian oso fuerte flipatu nuelako. Nahi gabe, akaso liburuak ez ninduelako katigatu, engantxatu egin nintzen jendearen solasaldietara. Adibidez, bizikletaz pasa zen bikote bati zera harrapatu nion: "Zakil batek zakil usaina du, alu batek alu usaina duen bezala" –tautologia zer den azaltzeko balio lezake?-. Beste bikote bat, zoritxarrez, luzeago geratu zitzaidan ondoan. Azkenaldiko gorabehera mediku guztiak erreparatu zituen batek. Diagnostika bakarrik aipatuko dizuet, xehetasunak aurrezteko: uzki urraketa. Geroxeago, tipo batek ez dakit noren semeari infartu bat eman ziola jakinarazi zigun –bai, ordurako niri ere bai–. Eta semeari eman ziola izan zen hor kezkarriena, halako gauzak gurasoari ematea dagokiolako, lege naturalak hala aginduta. Zorionez hizketakideak argitu zuen ez zela infartu bat izan. Lasaitu nintzen.

Hala ere, eguneko solas guztietan durduzagarriena: aurrez aurre bi gizon, egunonak eman eta batek galdetzen dio besteari: "Ez duzu beldurrik?". Horrela, boteprontoan, batere baselinarik gabe. Bestearen aurpegia ez nuen ikusi nahi izan, baina irudikatu nuen, galderari zer erantzun zion entzunda: "Zeri?". Nik ere beldur ezezagun bat sentitu nuen, handia, inoiz ez bezalakoa. Eta ez, ez zait jendea gustatzen. Horrela, oro har. Domaia da, ze zutabe onak idatziko nituzkeen bestela. ●



BDS EKIMENA: "PUMA-REN AURKAKO BOIKOTA DEITZEN DUGU"

ISRAELGO FUTBOL FEDERAZIOAK APARTHEIDA LAGUNTZEN DU

Palestinako kirolariak eta kirol elkarteek nazioarteko Puma kirol enpresaren aurkako boikota deitu dute Israelen aurkako boikota bultzatzen duen BDS (Boikot, Desinbertsio, Zigor) ekimena medio. Puma Israelgo Futbol Federazioaren (IFA) babesle nagusia da, eta Federazioaren barnean lur okupatuaren eraikitako asentamenduetako futbol taldeak daude. Asentamenduak gerra krimintzat hartzen ditu nazioarteko zuzenbideak. Pumaren aurretik, Adidas kirol enpresa izan zen IFaren babesle nagusia, baina azkenean babesletza utzi behar izan zuen.

BDSMOVEMENT.NET, 2019/09/05

